**KULTURA SAILA**

**6013**

AGINDUA, 2008ko urriaren 8koa, Kultura sailburuarena, toki-entitateetan euskara-planen ezarpenaren ondorioz finkatzen diren neurrien ebaluazio-, jarraipen- eta koordinazio-lanetan udal-euskaltegietako irakasleek duten partaidetza finantzatzeko laguntzak arautzen dituena (PINBE).

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren helburu nagusietariko bat Eusko Legebiltzarrak 1999ko abenduaren 19ko osoko bilkuran onetsitako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren (EBPN) garapena da.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu zehatzen eta ekintzetarako proposamenen artean, administrazioaren esparruari dagokionean, euskara-planak ezartzeko beharra jasotzen da, herri-administrazioetan hain zuzen ere, udaletan eta eskualdeetan nagusiki. Langintza horretarako tokian tokiko hizkuntza normalizaziorako zerbitzuak sortzea edo indartzea beharrezkoa gertatzen da.

Ezarpen-lan horri dagokionez, hainbat toki-entitate bere Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko plana zehazten eta betetzen ari da, baita plan horren testuinguruan, entitate horien barnean euskararen erabilera-plana abian jartzen ere.

Aipatutako plan horiek indarrean jartzeak beraiekin lotutako eta hainbat izaera nahiz edukitako behar berriak utzi ditu agerian. Prozesu horrekin batera HABE ohartu da hainbat euskaltegitako irakasleek ohikoa dena baino gutxiago jarduten duela bere langintzan; gainera, langile horiek aipatutako udal-planen ezarpenak eragindako behar berriei erantzuteko oso lagungarri izan daitezke.

Hori dela eta, aintzat hartu dira, batetik, Lehendakariaren ekainaren 27ko 8/2005 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena, eta, bestetik, otsailaren 14ko 25/2006 Dekretua, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duena. Ondorioz, egoki irizten zaio toki-entitateetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzen laguntzeko erraztasunak eskainiko dituen laguntza-deialdi hau bideratzeari.

Horren guztiaren ondorioz,

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

Deialdi honen bidez udal-euskaltegietako irakasleak udaletako euskara-planak ezartzeak eragindako ebaluazio-, jarraipen- eta koordinazio-lanetan aritzea sustatzeko diru-laguntzak arautuko dira.

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

**6013**

ORDEN de 8 de octubre de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se regulan las ayudas destinadas a la participación de profesores de euskaltegis municipales en actividades de evaluación, seguimiento y coordinación derivadas de la implantación de los planes de euskera en las entidades locales (PINBE).

La Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco tiene como uno de sus objetivos fundamentales el desarrollo del Plan General de Promoción del Uso del Euskera, ratificado por el Parlamento Vasco en su sesión de 19 de diciembre de 1999.

Entre los objetivos específicos y propuestas de actuación del Plan General de Promoción del Uso del Euskera (EBPN/PGPUE), concretamente entre los relativos al ámbito de la Administración, figura la necesidad de implementar planes de euskera en las Administraciones Públicas, principalmente municipales y comarcales, para lo que resulta necesario crear o reforzar los servicios de normalización lingüística correspondientes.

En lo que respecta al trabajo de implantación, diversas entidades locales vienen concretando y cumplimentando su plan de desarrollo del EBPN/PGPUE y, dentro del mismo, el plan interno de uso del euskera en la correspondiente entidad local.

La implantación de tales planes ha evidenciado nuevas necesidades de diferente naturaleza y contenido vinculadas a los mismos. Paralelamente, se han detectado por parte de HABE situaciones en las que la dedicación de parte del profesorado de los euskaltegis municipales está por debajo de la media habitual. Hay que añadir que estos profesionales pueden ser de gran utilidad para atender las nuevas necesidades derivadas de la implantación de dichos planes.

Es por ello que, atendiendo al ámbito competencial establecido por el Decreto 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari, que regula la creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como por el Decreto 25/2006, de 14 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura, se entiende oportuno promover la presente línea subvencional que contribuya a facilitar la labor de desarrollo del EBPN/PGPUE en las entidades locales.

En su virtud,

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Objeto.

Es objeto de la presente convocatoria regular las ayudas destinadas a fomentar la participación de profesores de euskaltegis municipales en actividades de evaluación, seguimiento y coordinación de los planes de euskera en sus municipios.

***2. artikulua***.– Laguntzagaia.

Laguntzagaitzat joko da udal-euskaltegiko irakasleak jarraian adierazten diren gai hauek bideratzea:

– Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren eta plan horretako erabilera-planaren ebaluazioa eta ekintzen jarraipena.

– Udaleko euskara-zerbitzuaren eta udal-euskaltegiaren arteko koordinazioa.

***3. artikulua***.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Agindu honen bidez ezarritako diru-laguntzetarako 839.424 euro erabili ahal izango dira guztira; hala ere, zenbateko hori agindu honetako xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera handitu ahal izango da.

2.– Zenbateko horretatik 232.692 euro 2008ko ekitaldiari dagozkio eta 606.732 euro 2009ko ekitaldiari.

***4. artikulua***.– Onuradunak.

1.– Agindu honen bidez eskainitako diru-laguntzen onuradunak HABEren Euskaltegien Erregistro Ofizialean euskaltegi publiko gisa inskribatutako euskaltegien erakunde titularrak izango dira.

2.– Diru-laguntzaren esleipena edo, hala dagokionean, ordainketa, jarraian aipatzen den baldintzaren menpe egongo da: onuradunari Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak xede bererako emandako diru-laguntza bat dela-eta hasi eta oraindik izapidetzen ari den itzultze- edo zigortze-prozedura burutzearena.

3.– Ezingo dute laguntza-deialdi honetara eskabiderik aurkeztu, laguntza publikoak lortzeko zigor administratiboedo penalik dutenek, ezta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik dutenek ere, sexu bereizkeria dela-eta gertatu direnak barne,Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren azken xedapenean xedatutakoaren indarrez.

***5. artikulua***.– Diru-laguntzak jaso ahal izateko baldintzak.

1.– Diruz lagundu daitezkeen egitekoak agindu zaizkion irakasleak 2008-2009 ikasturtean euskaltegiko helduen euskalduntze- eta alfabetatze-beharrizanei erantzun behar izatetik aske egon behar du.

2.– Aipatu irakasleak HABEk 2000-2001 ikasturterako udal-euskaltegiei onartutako lanpostuen zerrendako posturen bat betetzen egon behar du, kontratazioa edozein eratakoa izanik ere.

3.– Edozein kasutan ere, HABEk euskaltegien finantziaziorako bideratzen duen deialdira aurkeztutako irakasleen kopurua eta deialdi honetara aurkeztutako irakasleenaren arteko baturak ezingo du sekula gainditu

***Artículo 2***.– Actividad subvencionable.

Se considerarán actividades subvencionables las siguientes actuaciones llevadas a cabo por el profesorado de los euskaltegis municipales:

– Evaluación y seguimiento de las acciones recogidas en el Plan General del Uso del Euskera y del plan de normalización del uso del euskera.

– Coordinación entre el servicio de euskera y el euskaltegi municipal.

***Artículo 3***.– Recursos económicos.

1.– Se destinan al objeto de las ayudas establecidas en la presente Orden un total de 839.424 euros, dicha cantidad se podrá incrementar conforme a lo dispuesto en la Disposición Adicional de esta Orden.

2.– De esa cantidad 232.692 euros corresponden al ejercicio de 2008, y los restantes 606.732 euros al ejercicio de 2009.

***Artículo 4***.– Beneficiarios.

1.– Serán beneficiarios de las ayudas convocadas mediante esta Orden las entidades titulares de los euskaltegis públicos que figuran como tales en el Registro de Euskaltegis de HABE.

2.– La adjudicación de la subvención o, en su caso, el abono de la misma estará supeditado a los siguientes requisitos: el beneficiario no podrá hallarse incurso en procedimiento alguno de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

3.– No podrán presentar solicitud de ayuda a esta convocatoria quienes estén sancionados administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidada de obtención de subvenciones o ayudas públicas o incurso en prohibición legal que le inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

***Artículo 5***.– Requisitos para poder acceder a las ayudas.

1.– El profesorado al que formalmente se le han asignado los cometidos subvencionables deberá estar exento de atender la demanda de euskaldunización y alfabetización de adultos en su euskaltegi durante el curso 2008-2009.

2.– Dicho profesorado deberá hallarse ocupando alguno de los puestos incluidos en la relación de puestos de trabajo reconocida por HABE durante el curso 2000-2001 a los euskaltegis públicos municipales, mediante cualquier fórmula de contratación.

3.– En ningún caso la suma del número de profesores/as presentados/as a la convocatoria de HABE dirigida a la financiación de euskaltegis y el de profesores/as presentados/as a la presente convocatoria podrá superar

aurreko pasartearen arabera onetsitako irakasleen kopurua.

4.– Irakaslearen egitekoaren gaineko proposamenak kasuan kasuko udalaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ezarpen- eta garapen-mailarekin bat etorri behar du.

***6. artikulua***.– Diru-laguntzen zenbatekoa.

1.– Agindu honen bidez emango diren laguntzek langileen soldata-kostu gordinaren % 100 hartu ahal izango dute, betiere:

– Irakasle horiek diruz lagundutako egitekoetan soilik ari badira;

– Ekintzok 2008ko urriaren 1etik 2009ko irailaren 30era bitartean burutzen badira.

2.– Jasotzaile bakoitzari agindu beharrekoa honela zehaztuko da: 2008ko eta 2009ko ekitaldiei dagokiena zehazteko, UDALHITZ-eko akordioan jasotako soldaten zenbatekoa hartuko da kontuan (edo, horren ordez, Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioan modu orokorrean indarrean dauden lan-hitzarmenak).

3.– 3. artikuluan jasotako diru-partidarekin aurkeztutako eskaera guztiei artikulu honetan adierazitako kopuruetan erantzuteko modurik ez balego, erabilgarri dagoen diru-partida deialdira aurkeztu eta baldintzak betetzen dituzten eskaera guztien artean hainbanatuko da.

***7. artikulua***.– Eskaerak aurkeztea.

1.– Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da agindua indarrean jartzen denetik.

2.– Eskaerak, I. eranskineko ereduaren araberakoak, Hizkuntza Politikarako sailburuordeari zuzenduko zaizkio eta, II. eranskinarekin batera, aurkeztuko dira Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailean (Gasteizko Donostia kalearen 1ean; 01010), Bizkaiko Lurralde-zerbitzuan (Bilboko kale Nagusiko 85ean; 48011) edo Gipuzkoakoan (Donostiako Andia kaleko 13an; 20004) zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako beste edozein bide erabiliz.

***8. artikulua***.– Aurkeztutako eskaeran akatsak zuzentzea.

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza kasuan kasuko eskabideak akatsen bat duela edo osatugabea dela ohartuz gero, eskatzaileari akatsa zuzen dezala edo falta d(ir)en agiria(k) bidal dezala/ditzala eskatuko dio idatziz eta horretarako 10 eguneko epea emango dio. Horretaz gain, eskatzaileari bidaliko zaion idatzian honako hau ere adieraziko zaio: eskatutako guztia horretarako emandako epean aurkezten ez badu, eskabidearen tramitazioan atzera egin dela ulertuko dela. Eskatzaileak eskatutako dokumentua(k) garaiz aurkezten ez bad(it)u, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Er-

el número de profesores/as reconocidos conforme al apartado anterior.

4.– La propuesta sobre el cometido del profesorado deberá adecuarse al grado de implantación y desarrollo del EBPN/PGPUE.

***Artículo 6***.– Cuantificación de las ayudas.

1.– Las ayudas que se concedan al amparo de la presente Orden podrán alcanzar hasta el 100% del coste del sueldo bruto del personal siempre que:

– Éste se dedique en exclusiva a la actividad subvencionable.

– Estas actividades se desarrollen entre el 1 de octubre de 2008 y el 30 de septiembre de 2009.

2.– La cantidad a conceder a cada beneficiario se calculará de la siguiente manera: para los dos ejercicios correspondientes al curso 2008-2009, se tendrán en cuenta únicamente las cantidades salariales recogidas en UDALHITZ (o en su lugar los convenios que estén en vigor de forma general en la administración local de la Comunidad Autónoma del País Vasco).

3.– En el supuesto de que la dotación recogida en el artículo 3 no alcanzase para atender a la totalidad de las solicitudes presentadas en las cuantías señaladas en este artículo, dicha dotación se distribuirá proporcionalmente entre todas las solicitudes formuladas que cumplan los requisitos exigidos.

***Artículo 7***.– Presentación de solicitudes.

1.– El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir del día en que surta efectos esta orden.

2.– Las solicitudes, según el modelo del anexo I, se dirigirán al Viceconsejero de Política Lingüística, presentándolas, junto con el anexo II, en el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco (calle San Sebastián 1, de Vitoria-Gasteiz; 01010) o en los Servicios Territoriales del Gobierno Vasco en Bizkaia (Gran Vía 85, Bilbao; 48011) o en Gipuzkoa (calle Andía 13, Donostia-San Sebastián; 20004), bien directamente bien por cualesquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 8***.– Subsanación de errores en la solicitud presentada.

Si la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas observase en la solicitud algún error u omisión, se lo notificará por escrito al solicitante al que concederá un plazo de 10 días para que realice las oportunas subsanaciones. Además, en el escrito enviado al solicitante se le comunicará lo siguiente: si no presenta la documentación requerida en el plazo señalado se entenderá que desiste en su solicitud. Si el solicitante no presenta la documentación requerida dentro de dicho plazo el Viceconsejero de Política Lingüística dictará la resolución correspondiente en virtud de los artículos 42 y 71 de la Ley 30/1992, de 26 de no-

kidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. eta 71. artikuluetan ezarritakoaren arabera Hizkuntza Politikarako sailburuordeak dagokion ebazpena emango du.

***9. artikulua.***– Diru-laguntzen kudeatzailea.

Deialdi honetako diru-laguntzak Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak kudeatuko ditu.

***10. artikulua.***– Prozedura.

1.– Ebazpena eman aurretik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak txostena eskatuko dio HABEri eta beste txosten bat egingo du Zuzendaritzak berak.

2.– Lehenengo txosten horrek irakasle bakoitzaren gainean honako datu hauek jasoko ditu, gutxienez:

a) 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez;

b) 6. artikuluaren lehenengo eta bigarren pasarteek zenbatekoa zehazteko ezartzen dituzten irizpideak aplikatuz gehienez ordain daitekeen kopurua.

3.– Bigarrenak kasuan kasuko udalean laguntzeko eskatu den ekintzen bideragarritasunaren balorazioa jasoko du, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren ezarpen- edota garapen-maila kontuan harturik. Txosten honen bidez Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak HABE informatuko du dagokion udal euskaltegiko irakaslea EBPN edota erabilera-planaren jarraipenean aritzearen egokitasunaren gainean. Edozein kasutan txosten horrek deialdiak jasotako epeari egingo dio erreferentzia, hau da 2008ko urritik 2009ko irailera bitarteko epeari.

***11. artikulua.***– Ebazpena.

1.– HABEk eta Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak eginiko txostenak aintzat hartuta, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak ebazpena emango du deialdi honetan aurreikusitako laguntzen esleipenaz, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hilabeteko epean.

2.– Esleipen-ebazpena interesatu guztiei jakinaraziko zaie eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, guztiek horren berri izan dezaten.

3.– Ebazpena emateko epea amaitu eta interesatuari jakinarazi ez bazaio, eskaera ez dela onartu ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritako ondorioetarako.

***12. artikulua.***– Onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan arautsutako diru-laguntzen onuradunak honako betebehar hauek izango ditu:

a) Esleitutako diru-laguntza onartzea. Horrela, diru-laguntzaren esleipenaren gaineko jakinarazpena jaso ondorengo hamabost egunetan diru-laguntzari berariaz

viembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 9.***– Órgano gestor de las ayudas.

Las subvenciones previstas en esta convocatoria serán gestionadas por la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas.

***Artículo 10.***– Procedimiento.

1.– Con carácter previo a la resolución, la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas solicitará un informe a HABE y a la misma Dirección realizará otro informe.

2.– En el primero se recogerán como mínimo los siguientes datos relativos a cada profesor/a:

a) El cumplimiento de los requisitos exigidos en el artículo 5.

b) La cantidad máxima a abonar tras la aplicación de los criterios establecidos por los apartados 1 y 2 del artículo 6 para la determinación de las cuantías.

3.– En el segundo se recogerá la valoración acerca de la viabilidad de las actividades para las que se solicitan las ayudas atendiendo al grado de implantación y/o desarrollo del Plan General de Promoción del Uso del Euskera en el correspondiente municipio. Mediante el mismo la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Pública informará a HABE acerca de la idoneidad de que el profesor del euskaltegi municipal en cuestión se dedique a labores de seguimiento del PGPUE o del plan de uso. En cualquier caso dicho informe hará referencia al periodo recogido en la convocatoria, es decir entre octubre de 2008 y septiembre de 2009.

***Artículo 11.***– Resolución.

1.– La resolución de concesión de las ayudas previstas en esta convocatoria será dictada y notificada, a la vista de los informes emitidos por HABE y por la propia Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas, por el Viceconsejero de Política Lingüística, en el plazo de un mes a contar desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

2.– Dicha resolución se notificará a todos los interesados, y será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco a efectos de su general conocimiento.

3.– Si una vez transcurrido el plazo de resolución la misma no hubiera sido notificada al interesado, la solicitud correspondiente se entenderá desestimada, a efectos de lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 12.***– Obligaciones del beneficiario.

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas mediante esta orden tendrán las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la notificación de concesión de la subvención las en-

uko egiten ez badio, laguntza onartzen duela ulertuko da.

b) Kontrol Ekonomikoaren Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak deialdi honen bitartez esleitutako diru-laguntzak kontrolatzeko dituzten eginbeharrak betetzeko eska ditzaketen informazio oro ematea.

c) Diru-laguntza esleitutako xede zehatzetarako erabiltzea.

***13. artikulua.***– Diru-laguntzak ordaintzea.

Diru-laguntzak honako epe eta era hauetan ordainduko dira:

a) Diru-laguntzak esleipen-ebazpenaren bidez erabaki ondoren, 2008ko urritik abendura arteko epeari dagokion kopurua ordainduko da.

b) 2009ko apiriletik aurrera 2009rako esleitutako laguntzaren % 55 ordainduko da. Ordainketa hori Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak 2008ko urritik abendura arteko gastuen gaineko ziurtagiria (ikus hurrengo artikuluaren 1 a) puntua) aztertu eta onartu ondoren egingo da.

2008ko diru-laguntza behar bezala justifikatzen ez dutenei ez zaie 2009rako agindutako diru-laguntzaren % 55 ordainduko. Horren ordez, 2009ko diru-kopurua osorik justifikatzerakoan (2009ko urrian) likidazio-ebazpena egingo zaie, 2008ko ekitaldian zein 2009ko ekitaldian justifikatutakoaren gainekoa hain zuzen ere.

c) 2009ko urritik aurrera ebazpenean esleitutako laguntzatik geratzen den kopurua ordainduko da. Ordainketa hori Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak 2009ko urtarriletik irailera bitartean egindako gastuen gaineko ziurtagiria eta oroitidazkia (ikus hurrengo artikuluaren 1 b) puntua) aztertu eta onartu ondoren gauzatuko da.

***14. artikulua***.– Laguntzak justifikatzea.

1.– Aurkeztu beharreko agiriak honako hauek dira:

a) Gastuen gaineko ziurtagiria: onuradunak erakunde titularraren idazkari/kontu-hartzaileak egin eta erakunde bereko legezko ordezkariak ontzat emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan. Ziurtagiri horretan honakoak adieraziko dira (ikus III. eranskinean aipatu ziurtagiriaren eredua):

– Irakasle(ar)en soldat(ar)en gastu gordinak.

– Onuradunak agindutako laguntza esleitu zen horretarako erabili izana.

– Eskabidea aurkezterakoan, xede berbererako bestelako diru-laguntzarik jasoko zutenik ez jakiteagatik adierazi gabe geldititutako eta ordutik jasotako diru-laguntza guztien aipamena egiten duen idazkariaren/

tidades beneficiarias no renuncian expresamente a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas cuanta información le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las subvenciones.

c) Utilizar la subvención para el destino concreto para el que ha sido concedida.

***Artículo 13***.– Pago de las ayudas.

Las subvenciones se abonarán en los siguientes plazos y de la siguiente forma:

a) Una vez dictada la resolución de concesión de las ayudas, se abonará la cantidad correspondiente al plazo comprendido entre octubre y diciembre de 2008.

b) A partir de abril de 2009 se abonará el 55% de la subvención adjudicada para el 2009. Dicho abono se hará efectivo una vez que la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas haya analizado y aceptado el certificado justificativo de los gastos relativos al periodo comprendido entre octubre y diciembre de 2008 (véase el apartado 1.a del artículo siguiente).

A quienes no justifiquen debidamente la subvención correspondiente al 2008 no se les abonará el 55% correspondiente a la subvención de 2009. En su lugar al justificar la cuantía total correspondiente al 2009 (en octubre de 2009) se procederá a ajustar mediante resolución de liquidación las cantidades justificadas correspondientes al 2008 y 2009.

c) A partir de octubre de 2009 se abonará el resto de la subvención. Dicho abono se hará efectivo una vez que la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas haya analizado y aceptado el certificado justificativo de los gastos relativos al periodo comprendido entre enero y septiembre de 2009, así como la memoria justificativa correspondiente (véase el apartado 1.b del artículo siguiente).

***Artículo 14***.– Justificación de las ayudas.

1.– Los justificantes a aportar son los siguientes:

a) Certificado de gastos: el beneficiario deberá presentar ante la Viceconsejería de Política Lingüística certificado expedido por el Secretario/a Interventor/a de la entidad titular con el visto bueno del representante legal de la misma. En dicho certificado (Véase el modelo de certificado del anexo III) se recogerán los siguientes aspectos:

– Gastos brutos correspondientes al sueldo de los/las profesores/as en el periodo correspondiente.

– Certificado que acredite que el beneficiario ha utilizado la subvención para aquellos fines para los que había sido concedida.

– Relación de cualesquiera otras ayudas concedidas con el mismo objeto, que no fueron declaradas anteriormente porque en el momento de presentación no se tenía conocimiento de su efectividad. El beneficia-

kontu-hartzailearen egiaztagiria aurkeztu behar du onuradunak.

b) Oroitidazkia: onuradunak ekintza justifikatzeko oroitidazkia aurkeztuko du, honako datu hauek gehienez bost orritan jasoz:

– EBPNren edo horren osagai den udalaren erabilera-planaren ezarpenaren egoeraren berri;

– deialdi honen bidez esleitutako diruei esker burututako ekintzen zertzelada nagusiak eta plan(ar)ekin duten lotura.

2.– Agiriok epe hauetan aurkeztu beharko zaizkio organo kudeatzaileari:

a) 2008ko urritik abendura bitarteko gastuak justifikatzeko agiria 2009ko martxoaren 1a baino lehenago helarazi beharko zaio.

b) 2009ko urtarriletik irailera bitarteko gastuak justifikatzeko agiria eta oroitidazkia 2009ko urriaren 15a baino lehenago helarazi beharko zaizkio.

***15. artikulua.***– Likidazio-ebazpena.

Diru-laguntzen esleipena zehazteko kontuan hartutako baldintzetan ezer aldatu bada (betiere, laguntzaren helburua bete delarik) edo xede berbererako beste edozein erakunde publiko nahiz pribatutatik diru-laguntzaren bat jaso bada, diru-laguntzak esleitzeko emandako ebazpena aldatuko da. Horrelakorik gertatuz gero, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak diru-laguntzen zenbatekoak egokitzeko likidazio-ebazpena emango du.

***16. artikulua***.– Laguntzen bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetan arautzen laguntzak bateragarriak izango dira onuradunak izan dezakeen beste edozein diru-sarrerarekin, betiere lagundutako jarduerak inolako gain-finantzaketarik ez badu.

2.– Gain-finantzaketa badago, diru-laguntzatik dagokion kopurua kendu egingo zaio diruz lagun daitekeen kopurura egokitu arte.

3.– HABEk urtero irakasleen soldata-gastuak laguntzeko euskaltegiei zuzendutako diru-laguntza deialdiaren bidez lagundutako gastuak deialdi honetatik kanpo geratzen dira.

***17. artikulua***.– Baldintzak ez betetzeak.

1.– Ez-betetzeak honakoak dira:

a) Jasotako laguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jarduerez bestelakoetan erabiltzea.

rio deberá presentar un certificado emitido por el/la Secretario/a Interventor/a en las que se mencionen todas las subvenciones percibidas desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes.

b) Memoria: el beneficiario presentará memoria justificativa, recogiendo como máximo en cinco hojas los siguientes datos:

– Situación actual de la implantación del EBPN/PGPUE o del plan de euskera del ayuntamiento que es parte del mismo.

– Líneas generales de las actividades realizadas mediante la subvención concedida a través de esta convocatoria así como la relación de éstas con el/los plan(es).

2.– Los certificados relativos a los gastos y la memoria justificativa se deberán presentar al órgano gestor en los siguientes plazos:

a) El certificado para justificar los gastos relativos al periodo comprendido entre octubre y diciembre de 2008 antes del 1 de marzo de 2009.

b) El certificado para justificar los gastos relativos al periodo comprendido entre enero y septiembre de 2009 y la memoria justificativa antes del 15 de octubre de 2009.

***Artículo 15.***– Resolución de liquidación.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta y, en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier entidad pública o privada, dará lugar a la modificación de la resolución de concesión de la subvención. A estos efectos, el Viceconsejero de Política Lingüística dictará la oportuna resolución de liquidación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

***Artículo 16***.– Compatibilidad con otras subvenciones.

1.– Las subvenciones reguladas mediante esta convocatoria serán compatibles con cualquier otro ingreso que puedan obtener los interesados, siempre y cuando la actividad subvencionada no resulte sobrefinanciada.

2.– Si se produce sobrefinanciación, la subvención se reducirá en la misma cuantía en la que se ha producido dicha sobrefinanciación, hasta que ésta se ajuste a la medida correspondiente.

3.– Aquellos gastos ya subvencionados mediante la convocatoria que anualmente realiza HABE dirigida a los euskaltegis con el fin de subvencionar los gastos salariales de los/las profesores/as quedan al margen de esta convocatoria de ayudas.

***Artículo 17.***– Incumplimientos.

1.– Constituirán supuestos de incumplimiento:

a) La utilización total o parcial de las subvenciones percibidas para actividades distintas a las previstas en la presente Orden.

b) Agindu honetan edo diru-laguntza esleitzeko ebazpenean adierazitako betebeharrak ez betetzea.

c) Diru-laguntzaren likidazioa egiteko ebazpenean adierazitako itzuli beharreko zenbatekoa epearen barruan ez itzultzea (hala badagokio).

d) Bestelako xedapenek izaera orokorrez ezartzen duten beste edozein betebehar ez betetzea.

2.– Ez-betetzeren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta horiei dagozkien legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkio, betiere Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan adierazitakoa betez eta horretarako ezartzen den prozedurari jarraituz.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Eskatutako diru-laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, 3. artikuluan ezarritako guztizko zenbatekoa aldatu ahal izango da, baldin eta Kultura Sailaren beste programa batzuk gauzatu ondoren aurrekontuetako izakinak agortu ez badira. Aldaketa hori eskabideei buruzko ebazpena eman aurretik egin beharko da. Horren berri emango da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Hizkuntza Politikarako sailburuordearen erabakiaren bidez.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Agindu honetan aurreikusi gabe geratu diren gaietan Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997ko Legegintza Dekretuak ezarritakoa hartuko da aintzat.

***Bigarrena***.– Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio. Honen aurka interesdunek berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Kultura sailburuari agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horretako Aretoan agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epean.

***Hirugarrena***.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 8a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

b) El incumplimiento de las obligaciones establecidas en la presente Orden o, en su caso, de las que se establezcan en la resolución de concesión.

c) La no devolución de la cuantía que, en su caso, se señale en la resolución de liquidación de la subvención, en el plazo para ello establecido.

d) Cualquier otra que sea de obligado cumplimiento por así establecerlo con carácter general cualquier otra disposición.

2.– La constatación de la existencia de alguno de estos supuestos determinará, en los términos y previo cumplimiento de lo previsto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

La cantidad consignada en el artículo 3 podrá ser modificada teniendo en cuenta la cuantía total de las solicitudes presentadas y antes de realizar la resolución de esta convocatoria de ayudas, en base a los fondos disponibles en otras partidas presupuestarias del Departamento de Cultura, una vez ejecutados los programas correspondientes. La modificación de la cuantía total se dará a conocer en su caso mediante resolución del Viceconsejero de Política Lingüística publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Para todo lo no previsto en esta Orden se seguirá lo establecido en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido sobre las Normas que regulan la Hacienda General del País Vasco.

***Segunda***.– Contra esta Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación o bien directamente recurso contencioso administrativo ante la Sala de dicha jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

***Tercera***.– La presente Orden surtirá efectos al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de octubre de 2008.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

# I. ERANSKINA:
# ESKABIDE-ORRIA

| Eskatzailearen datuak |
|---|
| Euskaltegiaren erakunde titularra: |
| Erakunde titularraren NIFa: |
| Erakunde titularraren legezko ordezkariaren izen-abizenak: |
| Erakunde titularraren legezko ordezkariaren NAN-zenbakia: |

| Euskaltegiaren datuak |
|---|
| Izena: |
| HABEko erregistro-zenbakia: |
| Helbidea: |
| Telefono-zenbakia: |

Erakunde titularraren legezko ordezkariak honako hau

ADIERAZTEN DU:

Jarraian aipatzen d(ir)en irakaslea(k) 2008-2009 ikasturtean Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren edota udalean euskararen erabilera normalizatzeko planaren inguruko eginkizunetan dihardu(t)ela:

| Irakaslearen izen-abizenak | EBPNri emandako denboraren ehunekoa | Udaleko erabilera-planari emandako denboraren ehunekoa |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |

Udal Euskaltegiaren erakunde titular hau ez dela sexu diskriminazioagatiko zigor administratiborik edo penalik betetzen ari, eta ez zaiola debeku hori ezarri Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera. Bestalde, ez dagoela zigortuta diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin eta ez duela horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik.

ESKATZEN DU:

1.- Adierazitako irakasle(ar)en soldata-gastuak ordaintzeko behar adinako diru-laguntza esleitzea.

2.- Eskaera hau onartua izan dadila EBPN/erabilera-planetan dabiltzan udal-euskaltegietako irakasleen finantziaziorako diru-laguntza deialdian (PINBEn), 2008ko XXXXXaren XXko Aginduaren bidez arautukoan, hain zuzen ere.

........................................................................................................................................

(erakunde titularraren legezko ordezkariaren sinadura, tokia, data eta erakunde titularraren zigilua).

Lege-oharra

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak honako hau adierazi nahi dizu: eskabide-orri honetan jarri dituzun datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikopean dagoen fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko. Fitxategiko datuak ez zaizkio beste inori lagako. Fitxategia Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak erabiliko du, bakarrik, berak sustatutako diru-laguntzak kudeatzeko. Aipatutako lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara idatzi beharko duzu: Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza, Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

## II. ERANSKINA:
## BESTELAKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO AITORPENA

I. eranskinean zerrendatutako irakasleen soldata-gastuak direla eta, bestelako diru-laguntzen gainean aitortzen dut (X batez markatu dagokiona):

☐ erakunde honek deialdi honen bidez bakarrik eskatu duela diru-laguntza.

☐ erakunde honek jarraian zehazten d(ir)en diru-laguntza(k) eskatu d(it)uela:

……………………………………………………………………………………………………………………..

……………………………………………………………………………………………………………………..

……………………………………………………………………………………………………………………..

……………………………………………………………………………………………………………………..

……………………………………………………………………………………………………………………..

……………………………………………………………………………………………………………………..

Tokia eta data:

Erakunde titularraren idazkariaren/kontu-hartzailearen sinadura:

# III. ERANSKINA:
# LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO ZIURTAGIRIA

(14. artikuluko 1. puntuaren a) idatz-zatian jasotakoa adierazteko)

Nik, (idazkariaren/kontu-hartzailearen izen-deiturak) ............................... (udal euskaltegiaren izena)...............................(e)ko Udal euskaltegiko erakunde titularraren idazkariak/kontu-hartzaileak

ZIURTATZEN DUT

Udal euskaltegiko. 1)………………. 2)………………………. 3)...................... irakasle(ar)en soldata gordinak(ek) honako gastu hau eragin diotela hurrenez hurren Udal Euskaltegiari (zehaztu 2008ko urritik abendura bitarteko gastua den edota 2009ko urtarriletik irailera bitartekoa den): 1.ak:……………2.ak:……………. 3.ak……….. , guztira: ………………… eurokoa izanik aipatu gastua.

Bestalde 2008ko XXXXXXXaren XXko ebazpenaren bidez emandako diru-laguntza, laguntza-deialdia arautzen zuen aginduak adierazitako xede horretarako erabili da.

Bukatzeko, eta beste erakundeetako diru-laguntzen gainean aitortzen dut …………………………ko udal euskaltegiko erakunde titular honek 2008ko laguntza-deialdia arautzen duen 2008ko XXXXXaren XXko Aginduan jasotako xederako (X batez markatu dagokiona):

☐ Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik baino ez duela diru-laguntza jaso.

☐ Jarraian zehazten d(ir)en diru-laguntza(k) jaso d(it)uela(1):

………………………………………………………………………………………………………………………..

………………………………………………………………………………………………………………………..

Hala jasota gera dadin eta bidezkoak diren ondorioak izan ditzan ziurtagiri hau ematen dut

..................(e)n, 2009ko ........aren ........ (e)an.

Idazkaria/Kontu-hartzailea Ontzat emana (erakunde titularraren legezko ordezkariaren sinadura).

(1) Zehaztu zein erakundetatik eta zenbateko diru-laguntza jaso duen xede berbererako erakunde titularrak.

*ANEXO I:*
*FICHA DE SOLICITUD*

| *Datos del solicitante* |
|---|
| *Entidad titular del euskaltegi:* |
| *NIF de la entidad titular:* |
| *Nombre y apellidos del representante legal de la entidad titular:* |
| *Número del DNI del representante legal de la entidad titular:* |

| *Euskaltegiaren datuak* |
|---|
| *Nombre:* |
| *Número de registro de HABE:* |
| *Dirección:* |
| *Número de teléfono:* |

*El representante legal de la entidad titular*

*DECLARA:*

*Que los/las profesores/as mencionados/as a continuación se encuentran durante el curso 2008-2009 realizando labores relacionadas con el desarrollo del Plan General de Promoción del Uso del Euskera o el plan de normalización del uso del euskera del ayuntamiento:*

| Nombre y apellidos del/de la profesor/a | Porcentaje de dedicación al EBPN/PGPUE | Porcentaje de dedicación al Plan de uso municipal |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |

*Que la entidad titular de este euskaltegi municipal no está cumpliendo sanción administrativa o penal por incurrir en discriminación por razón de sexo ni está sancionada con esta prohibición en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.*
*Por otra parte, que no se encuentra sancionada con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halla incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello.*

*SOLICITA:*

*1.– Que le sea concedida la cuantía necesaria para cubrir los gastos salariales del/de la profesor/a o de los/las profesores/as anteriormente señalados.*
*2.– Que sea admitida la solicitud presentada a la convocatoria de ayudas para la financiación de los/las profesores/as pertenecientes a los euskaltegis municipales regulada por la Orden de XX de XXXX de 2008.*

.................................................................................................................................................
...............................................
*(Firma del/de la representante legal de la entidad titular, lugar, fecha y sello de la entidad titular).*

*Nota legal*
*El Departamento de Cultura del Gobierno Vasco le informa que los datos personales obtenidos de este impreso de solicitud van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal. El uso de dicho fichero, cuyos datos no serán objeto de cesión a terceros, se circunscribe al uso exclusivo de la gestión de las ayudas promovidas por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios, responsable de dicho fichero, C/ Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.*

*ANEXO II:*
*DECLARACIÓN JURADA RELATIVA A OTRAS AYUDAS*

*En relación a los gastos salariales de los/las profesores/as recogidos en el anexo I declaro que (Señálese con una X lo que proceda):*

☐ *que esta entidad únicamente ha solicitado ayuda mediante esta convocatoria de ayudas.*

☐ *que esta entidad ha solicitado la(s) siguiente(s) ayuda(s):*

……………………………………………………………………………………………………………………………..
……………………………………………………………………………………………………………………………..
……………………………………………………………………………………………………………………………..
……………………………………………………………………………………………………………………………..

*Lugar y fecha:*

*Firma del/de la Secretario/a /Interventor/a de la entidad titular:*

*ANEXO III:*
*CERTIFICADO PARA LA JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN*

*(Para acreditar lo mencionado en el apartado a) del punto 1 del artículo 14)*

*Yo, ......................................................(Nombre y apellidos del secretario/a/interventor/a) secretario/a/interventor/a de la entidad titular del euskaltegi municipal de.........................(Nombre del euskaltegi municipal)*

*CERTIFICO:*

*Que el sueldo bruto de los profesores 1) ................................ 2) ................................ 3)........................... ha producido un gasto (señálese si el gasto se ha producido entre el 1 de octubre y el 31 de diciembre de 2008 o entre el 1 de enero y el 31 de septiembre de 2009) de 1) ...................... 2) ..............................3) .................................... consecutivamente, suponiendo un gasto total de ...................................... euros.*

*Por otra parte, la subvención concedida mediante resolución de XX de XXXXXXx de 2008, se ha utilizado para el objeto recogido en la orden que regula la convocatoria de ayudas.*

*Para finalizar, y en relación con las subvenciones otorgadas por otras instituciones, declaro que esta entidad titular del euskaltegi municipal de .......................... para el objeto recogido en la Orden de XX de XXXXX de 2008 (señálese con una X lo que proceda):*

☐ *Que únicamente ha recibido la ayuda asignada por la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura.*

☐ *Que ha recibido la(s) ayuda(s) que se menciona(n) a continuación (1):*

..............................................................................................................................

..............................................................................................................................

..............................................................................................................................

..............................................................................................................................

..............................................................................................................................

*Para que así conste y surta los efectos oportunos, expido este certificado*

*En,............................. a ........... de ...................... de 2009.*

*Secretario/a/interventor/a* *Visto bueno: (Firma del representante legal de la entidad titular).*

*(1) Señálese qué cuantía ha percibido la entidad titular con el mismo objeto.*